



Hasi edo bukatu, festa giroan

KARMENAK ▶ Alegiarrek gaur izango dute jaietako azken eguna; alternatiboetan eta ofizialetan, egitarau oparoa dago aukeran

SANTAMAÑAK ▶ Ostiralean hasi ziren jaiak Asteasun, eta bihar bukatuko dira; festa eguna izango dute gaur ere Albizturren ▶ 6-7



Alegia. Besteak beste, sagardo dastaketa egin zuten atzokoan alegiarrek; edanak jana eskatzen, ordea, eta festa ofizialetako antolatzaileek txistorra eta ogia banatu zuten herritarren artean. JAIONE ASTIBIA



Alegia. Marka haustea lortu zuen Aimar Irigoienek atzo; 225 kiloko harria zazpi aldiz jaso zuen errezildarrak, bost minututan. JAIONE ASTIBIA



Asteasu. Santa Marina auzoan santamañak ari dira ospatzen, eta atzo haurrek izan zuten jolasean egiteko aukera. IMANOL GARCIA

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko aktoreak «gustura» 'Wazemank' saioaren harrerarekin

Ainere Tolosa, Jon Iraola, Anjel Alkain eta Mikel Pagadizabal ageri dira ▶ 4-5



Wazemank saio berrian parte hartzen duten aktoreak. ETB

XABIER USABIAGA ▶ KIROKAZETARIA

«Armstrong iragarpenak ari da betetzen»

Ullrich eta Basso ikusten ditu harekin batera podiumean ▶ 2-3

MINUTU ERDIAN ▶

Abesbatza
Lehiaketa, Usabal
kiroldegian

MUSIKA ▶ Aurtengo Abesbatza Lehiaketaren antolaketan buru-belarri ari da CIT-TEE eta arazo nagusienetakoa saioetarako aretoa izan dute. Gero eta indar handiagoa hartzen ari den lekua Usabalgo kiroldegi berria —Tolosako Guggenheim deitzen diote batzuk— da horretarako. Bertara joateko autobus zerbitzua jarriko lukete eta kontzertu bereziren bat San Frantzisko elizan izango litzateke. Ahots taldeen saioak Santa Klaran, beti bezala. Beste berrikuntza bat ere izango da: Gerontologikoa itxi ondoren hutsik gelditu den egoitza abesbatzak ostatu hartzeko erabiliko dutela.

UZTURRETIK ▶ RAMON OLASAGASTI

Sasiak janda



A bailan doa denbora. Iraganean urrututako bideetan berehala sortzen dira ahanztura-aren sasiak eta oteak. Berripoxak ere iraungitze data gero eta motzagoa du gaur egun: aste-bete irauten dute jostailu askok ekarri bitarteko ilusioa ganbarako hautsetan desagertzen den arte. Denoi gertatzen zaigu, ez umeei bakarrik.

Oraindik gogoan dut *Ibilaldiak Tolosaldean barrena* liburua aurkeztu zuten eguna; ez da hainbeste denbora. Hauspotu zuten ederki. «Tolosaldeko 28 herrietako historia, ohiturak eta natura gozatzeko (...) eta ahaztuko ez duzun eskualde bat ezagutzeko bide bat». Hala goratzen du liburua bere burua kontrazalean. Azpian, bi-txiaren aitabitxiak datoz: Tolosaldea Tour, Tolosaldea Garatzen, Tolomendi, Eusko Jaurlaritzza,

Gipuzkoako Aldundia eta Gipuzkoako Mendizale Federazioa.

Aurkeztu berrikan, GR-9 edo zezenen bidean barneratu nintzen. Tolosatik Albizurrerako hainbat zatitan, lar eta sasiak erabat janda zeukaten zidorra. Aurreko batean, berriz, Bidegoian-go ibilbidea egitekotan abiatu ginen. Eta han ere, bidearen zati handi bat sasiak hartua zegoen; eta ez ginen bidez okertu, ez, osin eta lar artean argi ikusten ziren zidorraren seinaleak. «Kontxo, hau al da ahaztuko ez dudana eskualde bat ezagutzeko bidea?», pentsatu genuen. Salbuespenak izango dira, ziurrenera, baina hortxe daude, inork jakin nahi bado.

Ondo dago turismo berdea saltzea, primeran ibilbideen liburu hauek argitaratzea eta, bide batez, tantotxo bat egin duzula goratzea. Aitabitxi askoren ohitura da, ordea, eskupekoa eman eta gero ahaztea. Noren ardura da orain bide horiek garbi mantentzea? Ibiltari eta mendizaleek, bidea urratzeaz gain, beren belaunburuak ere urratu behar al dituzte halako bide ustez eroetan?

TOLOSALDEKOHITZA.
INFO ▶Zer iritzi duzu
bidegorriaz?

Gaur Tolosara joatea pentsatu dut, baina egia esatea nahi baduzue, nik uste dut lehenago iritsiko nintzatekeela beste edonora. Ezinezkoa egiten da kalean oinez zein autoz lasai ibiltzea. Ezinezkoa, izan ere, Rondilla kalean zebra bidean lehen autoak begiratzea nahikoa ez bazen, orain bizikletak bi norabidean ba ote datozen begiratu beharra dago. Pertsona helduentzat zein beste edozeinentzat arriskuz betetako lekua bilakatu da Tolosako kalea. Beste alde batetik, nik galdera bat egin nahi nuke, edozein larrialdiren kasuan nola pasatu behar dute suhiltzaileek edota ambulantzietan Rondilla kalea? Nahikoa da kalean zehar autoak bidean izatea larrialdiko zerbitzua eginez doanak ezin pasatu ahal izateko. Gauza bat da bizikletentzat bidea egitea eta bestea non egiten den, nire ustez mila leku daude ego-giakoak direnak Tolosan!

ANE ▶

ASTEKO IRUDIA ▶

LEIRE MONTES



Samaniego ikastetxeko LH eraikinaren lehen harria jarri dute

Erredakzioa ▶ Astelehenean jarri zuten Tolosako Santa Luzia auzoan Samaniego herri ikastetxeko Lehen Hezkuntza hartuko duen eraikinaren lehen harria. Horretarako, Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu berria etorri zen —Tolosara egin duen lehen bisita—, eta udal agintariekin eta ikastetxeko irakasle-

ekin eta gurasoekin aritu zen ekitaldi horretan. Eraikin jasangarria eta bioklimatikoa izango dela esan behar da. Datorren urteko —2006— abendurako obra bukatuta egotea eta haurrak bertan ikasteko aukera izatea espero dute agintariek eta eskolako arduradunek.

Oso ondo iruditu zait bidegorria egitea. Tolosar guztiok dugu bertako kaleetan ibiltzeko eskubidea eta azken bolada honetan oinezkook eta bizikletazaleok gaizki samar genuen. Alde Zaharrean, esaterako, oinezkoek lehen-tasuna izan arren, praktikan autoak dira nagusi. Honen guztiaren arrazoa, antza, dendariak karga-deskargarako dituzten arazoak dira batetik, eta dendetako bezeroen erosotasunik eza bestetik. Lotsagarria benetan! Ezaguna egiten zait hauen diskurtsoa, antzekoa zioten Eroski, Garbera... ireki zituztenean. Orduan merkatalgune handiak ziren beraien arazoa, gaur bidegorria. Noiz benetako autokritika? Zergatik ez da ikertzen Tolosako komertzioaren gainbeheraren motiboa?

MIREN ▶ TOLOSA

Txalotzekoa. Bazen garaia! Aspertuxea bainago autoaren gehiegizko erabilera eta auto-adiktoez. Bidegorriaren kokapena ere, oso egokia, helburua bizikleta bultzatzea bada behintzat. Bizikletazaleok herriaren erdi-erditik ibili nahi dugu, autoen ondoren bederen, ez beti bezala (*minoría* guztiakin gertatzen dena), txoko batetik, ezkutuana eta lotsatuta.

ELI ▶ TOLOSA

XABIER USABIAGA ▶ KIROKAZETARIA

«Ez dago ibilbiderik ez areriorik Lance Armstrong geratuko duenik»

Iratxe Etxebeste ▶ Dudarik ez dago eskualdeko txirrindularitza aditu handienetakoa dela. Xabier Usabiagak aurtengo Tourraz duen iritzia jakin nahi izan du HITZAK.

Aurtengo Tourraz aipamenik egin behar izatekotan...

Armstrong iragarpenak betetzen ari dela. Orain arte inork eman ez duen profesionaltasu-

na erakutsi du. Euskaldunak, berriz, azken urteotako lanik kaskarra ari dira egiten. Gaur, hala ere, pozteko moduko albisteak ikusi dituzte: 2003an ezagutu genuen txirrindularia dela Haimar Zubeldia; konfiantza berreskuratzen badu lehen hamar postuetan sailka daiteke. Bestalde, aipatzekoa da Ivan Basso egiten ari den

denboraldia; Giroaren ostean Tourrean horrelako pedal kolpea erakustea goraiatzekoa da. Giroan aritu ziren gainerako txirrindulariak nekeak jota daude; salbuespena da bera. **Armstrongek lortua al du zigargarren Tourra?**

Parisera heldu arte ez dago esaterik, baina besteak oso urruti dituela erakutsi du, eta



HITZA

are gehiago erakutsi lezake txirrindulariren bat bere mailara iritsiko balitz. Hala ere, ez du uste horrelakorik gertatuko denik. Ez dago ibilbiderik ez areriorik Lance Armstrong geratuko duenik.

Geratzen diren etapei buruz... Biharkoa eta asteartekoa gogorak dira, baina ez sailkapen orokorra iraultzeko modukoak. Larunbata arte izango dira ihesaldiak; euskaldunen artean Zubeldiarekin dut itxaropen bakarra. Armstrongekin batera Ulrich eta Basso ikusten dituzte podiumean.

ESANA ▶



JOXELU ANDUEZA
TOLOSAKO ZINEGOTZIA

«Gurasoek seme-alabekin egon behar dute; maitatuak senti daitezela; izugarri eskertzen dute»

DATUA ▶

12.000

euro. Jokatuko ditu Juan Manuel Erasunek eta beste hainbeste Jose Mari Olasagastik gaurko aizkora eta sega apustuan.

PASADIZOA ▶

Kale izenen plakak. Azkenean, badirudi datorren astean jarriko dituztela Tolosan kale izen plakak berriak. Aspalditik ari zen jendea kexuka plakak horietako asko oso egoera txarrean zeudelako, ia irakurtezinak... Orain Udalak plakak berriak jarriko ditu kaleak izendatzeko eta uda honetan etortzen diren turistek —eta herritarrek— lekuak errazago topatuko dituzte.

TOLOSA ▶ KULTURA

JOXEMI SAIZAR

Ez ziren otoitz egitera joan. Ez eta mezetara ere. Bataio, jaunartze, ezkontza edo hileta batera ere ez. Herrian dugun ondare horren historia ezagutzera baizik. Organo doinuak entzunez.

Ostegun arratsaldean Santa Maria parrokiara joan zen jendeak *primizia* bat izan zuen, hemendik aurrera izango den aukeraren aurrerapena.

Kristautasunaren historiaz, Euskal Herrira eta Tolosaldera noiz iritsi zen azalduz aritu zen Antxon Agirre Sorondo. V-VI. mendean Euskal Herrira. Tolosaldean kristautasunaren lehen arrastoa Laskoraingo San Esteban ermita dela esan zuen etnografo adituak, X. mendean erdialdekoa edo XI. mendean hasierakoa. Arrameleko San Joan agian garai batean —Santa Maria eraiki aurretik— herriko parrokiak izango zela bota zuen eta agian horregatik direla sanjoanak herriko jaiak. Ondean zegoen Madalena gaixoen ospitala ere aipatu zuen. Horren harira, Santio bidea eta peregrinazio garaiak izan zituen hizpide. Muinoetan kokatuta zeuden —eta batzuk oraindik dauden— Izaskun, Iurre, Ezamako Santa Luzia, Aldaba eta Urkizuko ermitak ere aipatu zituen Agirrek. Garai batean Tolosako parrokiak bakarra San Esteban zela azaldu zuen. Iurreamendin eta Txaraman ere ermita batzuk baziren, baina partikularrak.

Tolosa sortzeko herri-agiriarekin hasi eta Santa Maria elizaren xehetasun batzuk emanez amaitu zuen bere saioa Ramon Aierza arkitektoak. Hiru ibaien artean eta Nafarroarekin muga egiten garai batean zuen balio estrategikoa gogorarazi zuen, bideak eta jendeak zaintzeko. Agiri horri esker tolosarrek zituzten eskubideak



Ostegun arratsaldeko hitzaldia Santa Maria parrokiara. J.SAIZAR

Historia klasea elizan

Kristautasuna Tolosaldean eta Santa Maria elizaren historia azaldu zuten; bisita gidatuak izango dira aurrerantzean

eta betebeharrak azaldu zituen: gizon libreak izatea, bere ondasunen jabeak, ordura arte ez zirenak. Gerra garaietan inguruko herririk batzuk Tolosaren babesa eskatu —eta ordaindu— zutela kontatu zuen. Gipuzkoako Hermandadea ekarri zuen gogora eta Gipuzkoak izan zuen urrezko aroa, ahaide nagusien arteko gerrateen ondoren. Askatasun egoera hartan ekonomia modernizatu egin zela, merkataritza sendotu egin zela, itsasoz bestalde produktu asko ekarri zituztela esan zuen. Egoera egoki horretan sortu zen Santa Maria eraikitzeko proiektua. Harresia eta bi zubi ere egin zituzten Tolosan. 1512an Gaztelak Nafarroa bereganatu zuenean gure herriak interesa galdu zuela aipatu zuen. «Zorionez» 1503an sute batek orduan zegoen eliza suntsitu egin zuela adierazi zuen Aierzak. Horri esker berria eraiki zutelako. Arazo, urte eta lan askoren ondoren. Orduan modan zegoen areto eliza eraiki zutela azaldu zuen, Erromako basiliken ondorena. Udalak izendatzen zituela apaizak. Lehen zutabeak estuagoak zirela. Errenazimendu garaiko bobedak, koro moderna, moda berriek ekarritako barroko eta neoklasiko elementuak... ditu Santa Mariak.

Eta hitzarmena sinatu zuten aldarean alkateak eta parrokiak, denen aurrean. «Pareta zahar hauek mintzatuko balira... zenbat poz, itxaropen, otoitz, bihotz taupada...», esan zuen Imanol Aldaregia parrokoak, Santa Maria «guztien etxea eta biltokia» dela erantsiz.

Hemendik aurrera Santa Maria parrokin bisita gidatuak egiteko akordioa itxi zuten. Horren *primizia* izan zuten ostegun arratsaldean Santa Marian bildutakoek. Gazteak falta, oraingoan ere.

TELEBISTA

Umore 'sanoa', sagarra bezala

'Wazemank' saioaren arrakastarekin «gustura» ageri dira eskualdeko Ainere Tolosa, Jon Iraola eta Mikel Pagadizabal aktoreak

JOKEMI SAIZAR

Umore sanoa egin nahian hasi ziren aurreko astean, eta —emaitzen araberis— lortzen ari direla dirudi. Bi saio besterik ez dituzte eman —bihar gausan izango dute hirugarrena— eta komentariotxo zaharbidia da: «Ikusi al dek Wazemank? Ederra, ehh».

Eskualdekoak dira ETB1eko saio honetako protagonista gehienak, hasi Anjel Alkain zuzendariarengandik —Santi Etxeberria da beste zuzendaria— eta Ainere Tolosa zuzendakidarra, Jon Iraola ibartarra eta Mikel Pagadizabal bilabonatarrearengana. Inabiz Agirresorobe usatutakoak ere paper garrantzitsua du telebistaon. Hauxez gain, esketx batzuetan beste aktore batzuen laguntza izango dute.



Wazemank-eko taldea; ezkerretik hasita, Isabel Agirresorobe, Iraola, Alkain, Pagadizabal eta Tolosa. ¶

har dira ondo atera ari, azaldu dio zuzendakidarrak Hitzari. Bihar hasiko duen zinemarako jantzia ez daki zer esan, «dena berria» eragingo zaitolako.

Pagadi eta Iraola bikote bezala ibili dira orain arte monologo eskaintzen tabernetan, gaztetan, antzoki txikitetan...

«Alkainek deitu zigun, proba egin eta lehen esperientzia luzea izango dugu telebistaon, esan du Pagadizabalek. «Orain arte taller batean aritu naiz lanean eta orain telebistaonek denboraldi baterako uzteko aukera eman dit. Orainoz sei programak egin ditugu eta agian gero jarraitu egingo dugun, azaldu du Iraolak.

Euskararen freskotasuna

Euskararen freskotasunak ematen du atentzioa Wazemank-en. «Kaleko euskarak da, zuzena. Gurea gipuzkera da, baina beste euskalkiak ere

sartzen ditugu», dio bilabonatarrek. Eskualdekoak gain, Lekeitokoa, Nafarroakoa, baha... ere sarri dute dio zuzendakidarrak.

«Euskaraz aritzea» egin zaito zailena Jon Iraolari: «Etxean dena euskaraz egiten dugun, baina orain arte umorea beti gaztelaniaz egin izan du, ohi-turaz. Euskaraz pertsonaiek bilatzeko eta zailagoa da, baina moldatu egin behariko dugun. Ezaguna behar du izan eta eta imitatzeak joko ematea. Joxen Tolosak, adibidez, uztex baino joko handiagoa ematen du. Imitazioak hori dauka: hartu pertsonaia bat, exprimitu eta berraz, dio.

Antena daraman denboragutik horretan lortu duten arrakastarekin «gustura» ageri du protagonista.

«Kritika positiboak jaso ditugu, produktu ona dela, freskoa,



AINERE TOLOSA
AKTOREA (DZURKILI)

«Kritika positiboak jaso ditugu: produktu ona dela, freskoa, naturala... hori nahi genuen, zerbaiz berria»

JON IRAOLA
AKTOREA (IBARRA)

«Orain arte umorea beti gaztelaniaz egin izan du, pertsonaiek eta euskaraz bilatzeko zailago izaten da»

MIKEL PAGADIZABAL
AKTOREA (VILLABONA)

«Umore sinplea egiten dugu; inteligentea dela diote batzuk, baina umore guztiak dira inteligentek»

naturala... Hori nahi genuen, zerbaiz berria, desberdina. Aidi berean xumea da, kongelakozrik gabekoa, Euskal Herriko bizitza normalek abiatuta», adierazi du Tolosak. Umorea euskaraz egitea ez dela erraza dio Pagadizabalek, baina «harrera ona» izan duela eta 45 minutuak «zakarra» pasatzen direla.

Udan zehar, astelehenetan, 22.30ean, Wazemank saioa ibusteko aukera izango da ETB1-en. Ondoren erabakiko dute jarraitzea izango den ala ez. «Beste saio batzuk gehiago izatea espero dute Tolosaldeko ordezkariak.

ANJEL ALKAIN • AKTOREA ETA ZUZENDARIA

«Era guztietako jendeari gustatzea izan da politena»

Asteasu bizi arren, Errioxan oponenten harrapatu du Hitzari Anjel Alkain aktore andoaindar ezaguna eta Wazemank saio berri honen idazlearen sortzailea. Alaba zaintzen ari den bitartean erratuz diti galde-rik telefonoz.

Zorionak Arrakasta izaten ari zarela dirudi.

Bai. Gu behintzat oso gustura gaude. Umore umil eta xumea egin nahi genuen, ahalik eta naturalena, ahozkoatuenen oinarritua, eta lortzen ari garela dirudi jaso ditugun komentariotxo arabera.

Behin eta berriz aipatzen duzun umore 'sanoa', baina zer da hori?

Euskaraz bizi garenontzako umorea, hemengo, baina leku guztietakoa. Eta saioa. Horretatik hartu dugu sagarra ibur gisa, ezaugarri horiek dituelako: hemengo, baina leku guztietakoa, eta saioa.

Nola osatu zen ideia?

Nire proposamena izan zen. Sorginen jaratza bukatzen zela eta, lehendik ezaguna dudan Santi Etxeberria errealizadore-ari apatu nion. Berari ere gustatu zezan ideia eta ETB1 bako-berria eman nuen. Proba gisa sei saio grabatu genuen eta horiek aurrera iburiko dugun zer gertatzen den. Jarraitzeak aukera handiak ditugula dirudi.

Nola osatu duzue taldea?

Casting-en bidez. Orain arte lanetan aritu naizen Goringo antzerki taldearekin eta Kutsidazu taldearekin, lan talde ona osatu dugun. Nagore Aranburu gidariaria ezaguna dut aspalditik eta be- rarerik bai nator gausa asok- tan. Gidoian freskotasuna sar- tzen ahalagindun gara eta akto- re ahalagindun berri batzuk ere sartu ditugu.

Aktore gehienak Tolosaldekoak sarete. Zergatik?



JON URE / ANJON PRESS

Horrela atera da, naturalki. Saiatu gara beste probentzie- takok ere bilatzen, baina az- kenean aktore onenen bila- joan gara eta horiek aukeratu ditugu, onenak gure iritziz. Nongo den berdin da. Saiote- tan eusalki desberdinak sar- tzen saiatzen gara, gipuzkoar- zentzumenen ere errotzeko.

Nola antolatuta duzue progra- ma bakoitza?

Saio bakoitza bi zati desber- din dugu. Alde batetik esketx batzuk izaten dira. Hor sartzen dira Kasadios-en bizi diren Arregitiarrak —Mounster fami- liakoaren antzeko zerbaiz—, Patxiren taller mekanikoak, hemendik hogei urterako Imagi- ne filozofiko Euskal Herria... Bestalé, estudioan bertan egindako zatia dago, dekorati- uak aprobetxatuz egindako imitazioak —Dushtine eta To- losa, Beste gu saioa...—.

Zer bilatzen duzue?

Gertuko umorea, eguneroko gausetan oinarritutako umore- ra. Denok joaten gara talde-

rrera eta fakturari harrututa gelditzen gara, adibidez. Hor- relako gausetan oinarritu gara.

Zergatik lortu du saioak ho- rrelako arrakasta?

Lehen esandako arrazoi ho- rriengatik truditzen zait. Polte- na izan da, kritikak entzunda, era guztietako jendeari gusta- tu ziolako, bai telebistarekin kri- tikos den uberristate irakas- leari eta baita kaleko ETBzale amonartuari ere. Oso progra- ma arina da eta 45 minutu konturatu gabe pasatzen dira edozeinentzat.

Zer asmo duzue aurrera begi- ra?

Jarraitzea nahiko genuke, baina hori ez dago gure es- ku. ¶

HORTZ-KLINIKA

Miriam Rodriguez Barrio doktorea
M^o Pilar Martinez Andueza doktorea

Larritza, 15-16ak, tel. 943 65 41 12 ALEGIA

TOLOSA • PALETA

Bihartik aurrera lehen faseko azken partiduak

Lehia bizia eta giro ona sortzen ari da Berazubín Tolosa CF-ren paleta txapelketan

ERREDAKZIOA

Aurrera dihoia Tolosa CF-k antolatutako XXXVII Paleta Txapelketa eta bihurtik aurrera lehen faseko azken partiduak jokatuko dituzte Berazubín frontoan. Aste honetan amaitu dira lehen faseko partidu horiek, eta hurrengo astean jokatuko dituzte finalerdiak. 27an bi multzotako lehen bi sailkatuak gurtuztatu, eta finalak 28an. Afaria ere izango da egun horretan txapelketari amaitzea emateko.

Azken egunetan jokatuko partiden emaitzak hauek dira: asteazkenean, Zabaleta-Urdanpilleta Balerdi-Artolaren aurka, Goitia-Oremin Agirre-Egila- zen aurka eta Sarriena-Txepartegi danpilletak 30 Elzemandi- Arandik 15, eta Lakunza-

Agotek 30 Apeztegia-Maizak 15, ostegunetan, Ygueros-Al- dazabalek 30 Landa-Huegu- nek 26, Lontxo-Nababalek 30 Balerdi-Artolak 19, eta Zabaleta-Urdanpilletak 30 Bengoa-Bengoetxak 15, eta ostirale- an, Goitia-Oreminak 30 Lan- da-Huegunek 15, eta Apeztegia-Maizak 30 Agirre-Egila- zek 16.

Bihar, astelehena, 18.30etik aurrera hiru partidu hauek izango dira Berazubín fron- toian, txapelketa honen lehen fasean: Zabaleta-Urdanpilleta Balerdi-Artolaren aurka, Goi- tia-Oremin Agirre-Egila- zen aurka eta Sarriena-Txepartegi danpilletak 30 Elzemandi- Arandik 15, eta Lakunza-

EROSKI BIDAIAK-EKIN

Saio-Cambria-La Pineda 275€

Tenerife 299€

Paris 269€

Amsterdam 474€

633€

EROSKI

Alegio plaza • Tel. 943 65 59 00

UDA HONETAN JANTZI EZAZU HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Enberrak 44/45 • Tel. 943 65 59 21

TOLOSAN

ISKINA TABERNA

Golzean Salda Gauetan martxal INTERNET

San Juan, 59 ALEGIA

Tel. 943653097

ONDA janaridenda

Ondo pasa festak!

San Juan, 44 • ALEGIA • Tel. 943 65 30 40

ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA EDARITEGIA

Gosariak, plazerak, martxalak eta... GIRO JATORRAI

Alegio plaza • Tel. 943 65 59 00

TOLOSA ▶

Goiz lasaia
atzoko azokan
oporrak
tarteko direla

Bertakoak baino kanpoko erosle gehiago izan direla, nabarmentzekoa

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasai eta eguzkitsua izan zen. Nabari-tu genuen giro aldetik Tolosako biztanle askok kanpora ateratzeko baliatu dutela as-teburua, eta, ondorioz, giroa zertxobait lasaituago zegoen. Kanpotarrak izan ziren, ordea, eta egia esanda, goizeko hamarrak alderako giroa apur bat berotzen hasi zen.

Produktuen artean, Ibarra-ko piperrak izan ziren nagusi atzokoan. Joan den astean berrikuntza modura aurkeztu ziren eta aste honetan dagoeneko mahai askotako produkturik ugariena izan da eta saldu ere, asko saldu zuten. Perretxikoak pixkanaka behera doaz.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Erromeroa	4,00	6,00
Surfinia	2,80	-
Porru landarea	2,40	-
Leka landarea	0,35	0,40
Haza kizkurra	6,00	-

Bertako produktuak

Ziza horia	15,00	-
Arraultzak	1,30	2,10
Kalabazina	0,72	-
Babarruna	8,00	12,00
Tipula	0,80	1,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Haza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60
Baraburiak	1,60	6,00


**TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

Eztabaida. Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK aukera ematen dizu zure iritzia emateko. Sartu eskualdeko euskarazko egunkariaren webgunera eta hartu parte aste honetako eztabaidan! Tolosan zabaldu berri duten bidegorriari buruzko iritzia eman dezakezu bertan.

ALEGIA ▶ KARMENAK

Azkena, baina ez okerrena

Aukerako ikuskizunak izanen dira gaur ere, gauerdian Txintxarria erre aurretik; Karmen Eguna bikain joan da, Aimar Irigoienen marka berria ere barne

JAIONE ASTIBIA

Karmen jaiek gaur dute azken eguna. Hurrengo urtera arte zain geldituko dira alegiarrek, gaur gauerdian txintxarriaren erreketaren ondoren. Baina ordura arte, oraindik egun luze eta oparo askoa dute aurretik gozatzeko.

Bienbitartean, atzo zuten jaien egun handia, Karmen Eguna, eta bete-bete joan zen, bai giroz eta baita ekitaldiz ere. Bat aipatzekotan, eguneko izar izan zen Aimar Irigoien harrija-sotzaile gaztea. Izan ere, 225 kiloko harriari, 5 minutuko denboran, 7 jasoaldi eman zizkion, lan bikaina eginez, oraindino Saralegik zuen marka berdindu ez ezik, hobetu ere egin baitzuten, epailearen ziztua entzun aurretik hestutasunik gabe. Jasoaldiak garbiak izan ziren, kolpe bakarrekoak, eta lanak egindakoan, ordura arte ixiltasun osoa gorde zuten ikusleek txalo zaparrada ikaragarria eskaini zioten.

Baina kirolekin goizean hasiak ziren alegiarrek. Ordiziako tiratzaile-eskolakoek tresneria prestatzerako hantxe ziren zain: erakusleen aholkuei adi, arku hartu, gezia jarri, soka tenkatu eta askatu, aurrean zituzten azinda itxurako panpini. Jarrera egoki askoa erakusten zuten gehinek ere.

Eguerdiari, 35 kilo txorizo egosi eta 43 kilo sardina erre banatu zituzten. Guztia 8 sagardotegik eskaintako sagardo eta txakolinez bustia, 336 botila edari fresko-fresko. Atera ahala, barrura!

Arratsaldean, saio bikaina Ikaztegietakoek ez ezik, herriko dantzariak ere egin zutena. Ikustekoa, era berean, ondoren burutu zuten herri kirol jaialdi oparoa ere, Irigoien tarteko



Taju handiz aritu ziren gaztetzoak arku-geziekin. JAIONE ASTIBIA



Irigoienek 7 jasoaldi eman zizkion 225ekoari, 5 minututan. J. A.

zela, aizkolari eta harri-jaso-tzaile gazteekin.

Bitartean, Iru Ako Supongo batukada taldea herriko bazter-rrak doinuz alaituz ibili zen, gauerako iragarrita zeuden plazako diskoteka eta Bulebarreko kontzertua aillatu bitartean. Tartean bertsolariaren emanaldia izan zen zineman.

Egun beteko ikuskizunak, atzo; gaur beste hainbeste. Noski, baina herritarren parte hartzea, festa guztien saltsa iznik, alegiarrek ez dute horren faltarik, han eta hemen lagun taldeen arteko umorea ikustea besterik ez dago. Gaur egun guztia dago berriz ere halaxe jarraitzeko.

EGITARUA ▶

Herriko jaien azken eguna izango dute gaur alegiarrek; ofizial eta alternatiboetan, egitarau oparoa da aukeran.

GAUR

Festa ofizialak.

09:00. Herriko txistulari eta trikitilarien diana.
09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana.
10:30. Scalextric zirkuitoa Kultur Etxeko batzar aretoan goiz guztian zehar, nahi duenak erabili ahal izateko. Bukaeran, Euskal Herriko txapeldunaren erakustaldia.
12:30. Ermuako Asociacion Folclorica Foulaleda gaitero banda. Kalejira Larraitz auzoan zehar eta kontzertua herriko plazan.
18:00. Pilota partiduak, afizionatuak: Ugaitz Renobales eta Jokin Argote eta Mikel Bellosa eta eta Jabi Oteiza.
19:00. Profesionalen pilota partiduak: Iker Arretxe eta Oier Mendizabal eta Julen Retegi II eta Escudero.
20:00. Oinkari dantza taldearen emanaldia plazan.
23:00. Dantzaldia Trakets taldearekin goizaldera arte.
00:00. Txintxarriaren erreketak Elena Zubillaga eta Ainhoa Zubillaga trikitilarien doinuz alaiturik.

Festa alternatiboak.

Egun osoan. Pirata Eguna. Denak pirataz mozorrotzea eskatzen dute.
Arratsaldean. Karro klandestinoekin poteo pirata.
21:00. Zahagiardoa.
23:00. Kontzertuak Zeck, Brigada criminal eta Biok taldeekin.

Gipuzkoan
50.000
etxetara

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio berean

ASTEASU - ALBIZTUR ▶ SANTAMAÑAK

Asteasuko Santa Marina auzoan jolasean aritzeko aukera izan dute haurrek

Gaur, zaldi lasterketa Asteasun eta Irigoien eta Izeta IV. harri-jasotzaileak Albizturren



Soka-tira izan zen haurrek egin zituzten jolasetako bat. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Bihar da Santa Marina Eguna, baina asteburu guztian zehar Asteasuko auzoan eta Albizturren gaur, festa giroan murgilduta daude. Asteasuko Santa Marina auzoan ostiralean ekin zioten festari eta bihar arte, gaurdian Tranpazulo jaitsei arte, jarraituko dute.

Atzokoan haurren txanda izan zen eta haienzako prestatutako jokoak egin zituzten. Batez ere herri kirolei lotutako jokoak egin zituzten: harri-jasotzeak, soka-tira, txingak... Haur dezente bildu ziren jokoetan parte hartzeko eta gustura ari ziren.

Nazioartekoa deitzen dioten toka txapelketa ere atzo jokatu zuten Santa Marinan. Arratsalderako giroa zertxobait goibeldu bazen ere, nahiko jende bil-

du zen toka tiratzaileen trebezia ikustera.

Gaurkorako, aipatzekoak dira Asteasun egingo duten zaldi lasterketa eta Albizturren Aimar Irigoien eta Izeta IV. harri-jasotzaileen erakustaldia. Zaldi lasterketa Gipuzkoako ligaxkaren baitan jokatzeko da, eta eskualdetik hiru parte-hartzaile izango dira: Iñaki Eizagirre asteasuarra, Asier Mujika zizurkildarra eta Xabier Gogorza ibartarra. Olarrea-Goiko jate-txearen ondoko larreetan izango da ikusmin handiko proba hori ikusteko aukera.

Txirindulariak ere izango dira goizean Andazarrateko igoera eginez. Bertsolarien jarduna eta trikitilarien doinuak ere ez dira faltako. Albizturren ere, herri kirolez gain, bertsolariak eta trikitilariak ariko dira giroa alaitzen.

SANTAMAÑAK ▶

GAUR ASTEASU

10:00. Andazarrateko XXI. Igoera (federatu gabeko txirindularientzat).

11:00. Meza nagusia. Ondoren, aizkolariak, harri-jasotzaileak, Murua eta Irazu bertsolariak eta Laja, Ziolar eta Eguren trikitilariak.

17:30. V. Zaldi Lasterketa. Gaur. Laja, Ziolar eta Eguren trikitilariak.

ALBIZTUR

12:30. Meza nagusia herriko elizan. Arandia anai trikitilariak alaituko dute herria eguerdian arte.

Arratsaldean. Herri kirolak: Aimar Irigoien eta Izeta IV. harri-jasotzaileak. Ondoren, bertsolariak: Millan Telleria eta Anjel Mari Peñagarikano. Gaur. Arandia anaiak.

BIHAR ASTEASU

11:15. Meza nagusia. Ondoren, hamaiketako.

13:00. Herri kirolak bailarakoen artean. Ondoren, Kupela taldea eta Mafiukorta eta Zeberio bertsolariak.

17:30. Kalejira. Gaur. Kupela taldea. Gaurdian. Tranpazulo jaitziera.

ZIZURKIL ▶ KOADRILA EGUNA

Jai giroan hartu dute koadrilek herriko plaza

Beren eguna ospatu zuten atzo bazkari herrikoia, eta, ondoren egindako lagunarteko jolasekin

I. GARCIA

Joxe Arregi plaza blusaz bete zen atzo. Ez dira festak, baina, horiek irailaren hasieran baitira. Atzokoa Koadrilen Eguna izan zen, antolatzen duten hirugarrena. 2003. urtean, koadrilek blusak janzteko ohiturak 25 urte bete zituen eta horregatik, herriko gazteei otu zitzaizkien festetatik aparte egun batean elkartzea. «Oso gustura» gelditu ziren koadriletako kideak, eta, horrela, urtero antolatzea pentsatu zuten.

Festatik aparte izateak ez du esan nahi atzo jai girorik ez zenik. Adin ezberdinetako koadrilek bildu ziren Joxe Arregi plazan, eta bakoitzak bere mar txan bazkaldu zuten. Bazkarian izan zen berezitasunik: beste urteetan jatekoa *katering* zerbitzu batek ekartzen bazuen ere, aurtengoan koadrila bakoitzak prestatu behar izan du bere bazkaria. Batzuek besteek baino gehiago landu zituzten jakiak, eta denek txotx egi-



Toka izan zen arratsaldean egindako jokoetako bat. I. GARCIA

teko aukera izan zuten plazan bertan jarrirako bi sagardo kupeletatik.

Arratsaldean koadrilen arteko jokoak egin zituzten. Aurretik edariak lotsa kendu ondoren, erraz animatu ziren jolasetan parte hartzera, zerua zertxobait lainotua bazegon ere. Azken finean, horretarako antolatzen dute egun hori: herriarrek, jaietz aparte, elkarrekin egoteko aukera izateko, betiere giro alaiean.

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. 26 eta 35 urte arteko igeltseroa behar da, 2. mailako ofiziala. Fabxada, estaldura eta aldamio montajearen aditua. Bere autoa duena. 620 800 186. Josebo. Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

Lardi auzoa, Zubi txiki industr. 20150 ADUNA Tel. 943 69 68 64 Faxa: 943 69 68 47

Zumeta

TOLOSA ▶

Argindar mozketak txikiak izango dira aste honetan

Subestazio berria martxan jartzeko lanak egin behar dituztela eta, datorren astean argindar mozketak txikiak izango dira, Tolargik jakitera eman duenez. Horrela, hila- ren 19an eta 20ean, hau da, asteartean eta asteazkenean, ordubetez moztuko dute argia. 23:00etatik 00:00etara, beraz, ezingo da argindarrak erabili.

TOLOSA ▶

Kirol elkarte eta klubentzat, diru laguntzak

Tolosako Udalak gogorarazi du herriko kirol elkarteek eta klubek beren egiturak garatzeko diru laguntzak eskatu ditzaketela. Horrela, interesatuta dauden elkarteek eta klubek hil honen amaiera arte dute aukera diru laguntzak jasotzeko eskaerak egiteko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888

- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leizaran autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. San Inazio jaien barruan, hilaren 29rako zikiri-jatea antolatu dute, 20:30ean. Txartelak dagoeneko salgai daude, Arandia Jatetxean, 18 eurotan.

Berastegi. Gaztainondo jubilatutako elkartek Calahorrara (Errioxa, Espainia) irteera antolatu du hilaren 21ean. Eliza eta azoka bisitatuko dute, eta ondoren Azagrara joango dira bazkaltzera. Izena eman nahi duenak elkartearen bertan egin dezake, edo 943 68 32 02 telefono zenbakian.

Tolosa. I. Ehiza Zakur Lehiaketa Herritarra eta Probintziala. 09:00etan hasita, Montezkuen.

Tolosa. Odol-ematea. Bihar, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean.

Tolosa. Iturriza elkarteak Brioneseko Ardoaren Museora (Errioxa, Espainia) irteera antolatu du abuztuaren 5erako. Izen-ematea, elkartearen (Euskal Herria plaza).

Tolosa. Oargi mendi elkarteak mendi irteera eta arroila jaitsiera antolatu ditu hilaren 22tik 25era bitartean. Informazio gehiago eta izen-ematea 637 83 03 80 telefonon.

ERAKUSKETAK

Alegia. Fernando Rojo tolosarraren eta Izarne Garmendia irurarraren Afrikako argazkiak, Jubilatuen tabernan.

Hernalde. Pepi Arrutiren olioak, Herriko ostatuan.

Tolosa. Xabier Galizaren akuarelak, Poxpolin enmarkazio dendan

Tolosa. Malen Urzelaireren margolanak, Sorrone enmarkazio dendan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra, Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza, Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
Tolosa, Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
Leitza, Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Jazz musikari bikainenak

TOLOSA ▶ Gonzalo Tejada Special Triok Bill Evans omendu zuen herenegun Fronton kafetegian, Gau Giro programazioaren barruan



Bakarka, binaka eta hirukotean aritu ziren Iñaki Salvador, Gonzalo Tejada eta Mikel Andueza herenegun Fronton kafetegian. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Euskal Herriko jazz musikari bikainenak entzuteko aukera izan zen herenegun gauean Tolosako Fronton kafetegian, Gau Giroaren programazioaren barruan: Gonzalo Tejada Special Trio.

Tejadak kontrabaxuan, Iñaki Salvadorrek pianoan eta Mikel Anduezak saxoetan duela 25 urte hil zen Bill Evans omendu zuten. Musikari ezagun horrek sortutako eta ezagutzera emandako hainbat pieza es-

kaini zituzten kafetegian bildutako jendearen —dezenete bildu zen, musikari ezagunak tartean, baita kanpotik etorritako jendea ere— gozamenerako.

Hirukoteak eskainitako kontzertuan tarte batzuk utzi zituzten bikoteak aritzeko, kontrabaxua-saxoa eta pianoa-saxoa. Antzoki txikietan aktuatzen du normalean hirukote honek, eta tabernetan jotzen ohituta daude, bere alde on/txarrez gozatzeko/paratzen. Zerbait edanez lasai dagoen entzulegoaren konplizitatea

izan daiteke lehenengoetakoa. Taberna bateko bereko hotsak —kafetera, edalontziak, elkarriketak, telefono mugikorrak...— bigarren atalean. Gonzalo Tejadak esan zuenez, «edalontzi baten soinua bateriaren platoa bilakatzen da askotan» horrelako egoeretan. Horiexek dira horrelako lekuen abantailak/desabantailak. Baina ezin alde batera utzi musika ona entzuteko eskaintzen duten parada.

Pieza bat bestearekin kateatuz konturatu gabe pasatu zen

ordubete eta entzuleek «gaue-ro desberdin, baina beti bikain» jotzen duten bakarlarrien eta taldearen lana biziki txalotu eta eskertu zuen. Bill Evans ere gustura geldituko zen entzundako doinuekin eta jasotako omenaldiarekin.

Bukatzeko, Fronton kafetegian «bizitutako une onak eta latzak» izan zituen Tejadak go-goan eta azken pieza «Euskadina azkenaldian eta latzak sufritzen ari direnei» eskaini zien. Hurrengo Gau Giro, Kolonbiako dantzak, ostegunean.

AGURRAK ▶



URTE ASKON
Eli.
Zorionak biharko partez. Armstrong eta Ulrich.

ZORIONAK
Jon Ander Peña Olazabal.
Bihar 8 urte. Etxekoan, eta bereziki Ane eta Loizaze partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!